

UDAKO
AISIALDI
ESKAKINTZA
2025

zirimola



Leire
02
06/02
unak
rederra
02
Leire
03
2024
2024-07-03

Donostia
Summer nights
Summer
Gazte
Amara
Donostia

Kaixo lagun,

Bizi-bizi dator 2025eko uda. Gogoz eta ilusioz aritu gara Zirimola Aisialdi Taldean eskuartean duzun katalogoa sortzen.

Euskal Herriko **haur eta gazteak saretzeko** helburuarekin udaleku eskaintza paregabea aurkezten dizugu. **Haurrak eta gazteak erdigunean** kokatuz, bizipen positiboz osatutako esperientzia ahaztezina izan dadin osagai guztiak bildu ditugu gure egonaldietan: **ikuspegi inklusibo eta herritarra** dute, askotariko **ekintza ludikoak** antolatzen dira, ekimen **parte-hartzaileak eta parekideak** dira.

Eta hori guztia... bereziki **Zirimolako Hezitzaile Eskolan** hazitako eta hezitako hezitzaileen eskutik. Euskara eta euskal kulturarekiko **konprometituak**, ingurumenarekiko **arduratsuak**... aisialdi euskalduna eta hezitzailea garatzeko trebatutako hezitzaile talde paregabea dugu. Gogotsu daude, uda hasteko irrikitan eta haur zein gazteen bidelagun izateko prest.

Euskal Herriko kale, plaza eta txokoak **euskaraz eta euskal kulturaz** ziprztintzeko asmotan gara. BAZATOZ?

Bete uda oroitzapenez eta eman izena Zirimolako udalekuetan!

zirimola

UDALEKU IREKIAK EUSKARAZ (IKASTOLAN BERTAN)

	1.txanda Ekainak 23-27	2.txanda Ekainak 30- uztailak 4	3.txanda Uztailak 7-11	4.txanda Uztailak 14-18	5.txanda Uztailak 21-24
eman hegoak	2015-2021 (HH3-LH4)	2015-2021 (HH3-LH4)	2015-2021 (HH3-LH4)	2015-2021 (HH3-LH4)	2015-2021 (HH3-LH4)

UDALEKU ITXIAK EUSKARAZ (7 EGUN)

	Ekainak 22-28	Ekainak 29-uztailak 5	Uztailak 6-12	Uztailak 13-19
euskara mugara (Lapuebla de Labarka)	2014-2016 (LH3-5)	2014-2016 (LH3-5)	2014-2016 (LH3-5)	2014-2016 (LH3-5)
natura arnas (Allo)	2013-2015 (LH4-6)	2013-2015 (LH4-6)		
uretan blai (Lekeitio)	2012-2013 (LH6-DBH1)	2011-2012 (DBH1-2)	2013-2014 (LH5-6)	2011-2012 (DBH 1-2)
uretan blai (Zurriola)		2013-2015 (LH4-6)	2011-2012 (DBH1-2)	

UDALEKU ITXIAK EUSKARAZ (10 EGUN)

	Ekainak 26-uztailak 5	Uztailak 6-15	Uztailak 13-22
gazte egonaldiak (Bermeo)	2009-2010 (DBH3-4)		
gazte topaketak (Allo)		2009-2010 (DBH3-4)	
uretan blai (Zurriola)			2013-2015 (LH4-6)

UDALEKU ITXIAK INGELESEZ (7 EGUN)

	Ekainak 29-uztailak 5	Uztailak 6-12	Uztailak 13-19
multi-adventure camps (Bermeo)		2011-2012 (DBH 1-2)	2013-2014 (LH5-6)
multi-adventure camps (Zarautz)	2011-2012 (DBH1-2)	2013-2014 (LH5-6)	

UDALEKU ITXIAK INGELESEZ (10 EGUN)

	Uztailak 13-22
multi-adventure camps (Zarautz)	2011-2012 (DBH1-2)

EMAN HEGOAK



Ekainean eta uztailean zehar **ikastolan bertan** egiten diren **goizeko udalekuak** dira eta **HH eta LHko ikasleei zuzenduta** daude.

Programazioa adin-tarte bakoitzari egokitzen zaio, eta aisialdi euskalduna, inklusiboa eta hezitzailea eskaintzeko helburuz, aste bakoitzeko interesgune jakin bat duen jarduera-multzoa garatzen da.

NOIZ

Ekainaren 23tik uztailearen 24ra.
5 txandatan, goizez.

NORENTZAT

2015-2021 artean jaiotakoentzat (**3-10**).

NON

Norbere ikastolan egingo da (ikastolaren baitan dago proiektuan parte hartzea).

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

Baldintza orokorren eta ordainketen berri jakiteko **galdetu zure ikastolan.**

EUSKARA MUGARA

SORTU, IZAN, GOZATU!



Euskara mugaraino eramango dugu, aisialdi hezitzaileaz gozatuz, Arabar Errioxako ertzak ezagutuz eta bertako baliabide kultural eta naturalak dastatuz. Astebetez,

Lapuebla de Labarkako Assa ikastolan ekintza ludikoz beteriko elkarbizitza-gunea sortuko dugu. **Mahastietan, upategietan eta Ebron ere euskaraz bizi gara!**

NOIZ

- Ekainaren 22tik 28ra.
- Ekainaren 29tik uztailaren 5era.
- Uztailaren 6tik 12ra.
- Uztailaren 13tik 19ra.

NORENTZAT

2014-2016 artean jaiotakoentzat (8-11).

NON

Lapuebla de Labarkako **Assa Ikastolan**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

275€

NATURA ARNAS

JOKO, JOLAS ETA PLAST!



Lizarraldea **euskal jolas eta jokoen bitartez** ezagutzeko aukera paregabea. Allok eta haren inguruak ematen dizkigun baliabide naturalak uztartuz, udagi-roan astebeteko egonaldiak egingo ditugu. **Mendi-irteerak, euskal pilota, herri-kirolak, igerilekua, tailerrak, gaubelak...** aspertzeko denborarik ez!

NOIZ

- Ekainaren 22tik 28ra.
- Ekainaren 29tik uztailaren 5era.

NORENTZAT

2013-2015 artean jaiotakoentzat (**9-12**).

NON

Alloko **La Tahona etxean**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

300€

GAZTE EGONALDIAK



Gazteentzako beren-beregi antolatutako egonaldi hauetan elkabizitza ardatz izango dugu. Norbanakoen izaera eta nahietatik abiatuta eta inguruan ditugun espazio natural eta kulturalak baliatuz, taldean gozatzeko hainbat ekintza ludiko-hezitzaile antolatuko dira. Jolasak, irteerak, ur-kirolak, lagunak, gaubelak... oporrak direlako!

NOIZ

Ekainaren 26tik uztailaren 5era
(**10 eguneko txanda**).

NORENTZAT

2009-2010 artean jaiotakoentzat
(**14-16**).

NON

Bermeoko **Eleizalde Ikastolan**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

460€

GAZTE TOPAKETAK



Euskal Herriko lurralde ezberdinetako **gazteen topagunea** izango da La Tahona aterpetxea. **Gazteen interesak, motibazioak eta beharizanak aintzat hartuz**, askotariko ekintzez eta dinamikez osatutako aste ludikoa izango da bertan egingo duguna. Gazteek, jolasak ematen duen gozamenerako aukera baliatuz, berdinen arteko harremanetan sakontzeko aukera paregabea izango dute.

NOIZ

Uztailaren 6tik 15era
(10 eguneko txanda).

NORENTZAT

2009-2010 artean jaiotakoentzat
(14-16).

NON

Alloko **La Tahona etxean**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

360€

URETAN BLAI



Aurten **Zurriolan eta Lekeition** biziko dute ikasleek **urak eta itsasoak** kostaldean, pertsonengan, komunikazioan eta kulturaren izan duten eragina.

Modu horretan, naturaz gozatzeko aukera izango dute, itsas mundua ezagutzeko eta sentituz, itsasoan eta Donostiako eta Lekeitioko inguru ederretan egingo diren jolasen, jokoen eta jardueren bidez.

NOIZ

- Ekainaren 22tik 28ra (Lekeitio).
 - Ekainaren 29tik uztailaren 5era (Lekeitio eta Donostia).
 - Uztailaren 6tik 12ra (Lekeitio eta Donostia).
 - Uztailaren 13tik 19ra (Lekeitio).
 - Uztailaren 13tik 22ra (Donostia).
- (10 eguneko txanda).**

NORENTZAT

2011-2015 artean jaiotakoentzat **(9-14)**.

NON

Donostiako **Zurriola Ikastolan** eta Lekeitioko **Azkue Ikastolan**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

7 eguneko txanda: **350€**

10 eguneko txanda: **460€**

INGELES UDALEKUAK

MULTI-ADVENTURE SUMMER CAMPS



Euskal kostaldean **ingelesez egingo diren multiabentura udaleku itxiak** dira hauek.

Zarautzen eta Bermeon

egingo diren egonaldi hauetan, gazteek ingelesa lantzeko aukera izango dute ekintza-programa zabal baten bidez: kirol- eta ur-ekintzak, txangoak, eskulan eta tailerrak, gaubelak... Hezitzaileak

Euskal Herriko ingeles hiztunak eta jatorriz ingeles hiztunak izango dira.

Enjoy the adventure with us!!

NOIZ

- Ekainaren 29tik uztailaren 5era (Zarautz).
 - Uztailaren 6tik 12ra (Bermeo eta Zarautz).
 - Uztailaren 13tik 19ra (Bermeo).
 - Uztailaren 13tik 22ra (Zarautz).
- (10 eguneko txanda).**

NORENTZAT

2011-2014 artean jaiotakoentzat **(10-14)**.

NON

Zarauzko **Salvatore Mitxelena Ikastolan** eta Bermeoko **Eleizalde ikastolan**.

PREZIOA ETA IZEN-EMATEA

7 eguneko txanda: **350€**

10 eguneko txanda: **460€**

INFORMAZIOA

WEB ORRIAN: www.zirimola.eus
ZURE IKASTOLAKO IDAZKARITZAN

NOLA MATRIKULATU

ON-LINE: www.zirimola.eus
NORBERE IKASTOLAN
(Eman Hegoak)

ARRETA ORDUAK

Astelehena-osteguna
9:00-14:00/15:00-17:00
Ostirala
9:00-15:00

Tlf.: (0034) 943 369637/ 943 445108
Emaila: zirimola@ehi.ikastola.eus

IZEN EMATEA

Martxoaren 4tik maiatzaren 14ra

www.zirimola.eus



ikastolenelkartea